

## **Ley Orgánica 2/1997, de 19 de junio, Reguladora de la Cláusula de Conciencia de los Profesionales de la Información**

BOE, nº 147, de 20 de junio

### **EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

La Constitución Española de 1978 ha introducido en su parte dogmática el reconocimiento del derecho de los profesionales de la información a la cláusula de conciencia.

Y si bien es cierto que este derecho estaba ya reconocido por la legislación ordinaria, con diferentes grados de garantía, en diversos estados democráticos, la aportación del texto constitucional español ha sido la de integrarlo como elemento constitutivo del derecho fundamental a recibir y comunicar información.

La fuerza normativa de la Constitución ha dotado a este derecho de plena eficacia jurídica desde su promulgación y, en consecuencia, su exigibilidad jurídica vincula a poderes públicos y a particulares.

Pero dicho esto, es necesario precisar su contenido, al objeto de asegurar su correcto ejercicio por parte de los profesionales de la información como destinatarios básicos de este derecho específico y, al mismo tiempo, proporcionar a la libertad de expresión y al derecho a la información un instrumento jurídico imprescindible que garantice su ejercicio efectivo en un Estado Social y Democrático de Derecho.

Esta Ley Orgánica sigue la línea trazada por el Tribunal Constitucional de instar a los poderes públicos, y, por tanto, al Parlamento a llevar a término acciones positivas en defensa de los derechos fundamentales, asegurando la imprescindible complementariedad de los valores constitucionales de libertad e igualdad.

En este sentido, su articulado responde a la necesidad de otorgar a los profesionales de la información un derecho básico en la medida en que ellos son el factor fundamental en la producción de informaciones.

Su trabajo está presidido por un indudable componente intelectual, que ni los poderes públicos ni las empresas de comunicación pueden olvidar.

La información no puede ser objeto de consideraciones mercantilistas, ni el profesional de la información puede ser concebido como una especie de mercenario abierto a todo tipo de informaciones y noticias que son difundidas al margen del mandato constitucional de veracidad y pluralismo.

En consecuencia, los elementos definidores de esta Ley Orgánica tienen un doble punto de partida: en primer lugar, la consideración del profesional de la información como agente social de la información,

## **Ekainaren 19ko 2/1997 Lege Organikoa, Informazio Arloko Profesionalen Kontzientzia Klausula Arautzekoa**

EAO, 147. zk., ekainaren 20koa

### **ZIOEN AZALPENA**

Espainiako 1978ko Konstituzioak bere zati dogmatikoan aitortu du informazio- arloko profesionalen kontzientzia- klausularako duten eskubidea.

Egia esan, berme-maila desberdinekin bada ere, estatu demokratiko batzuetako legeria arruntek aitortua zuten eskubide hori. Alabaina, Espainiako konstituzio- testuaren ekarpena da eskubide hori barneratzea, informazioa jaso eta komunikatzeko oinarriko eskubidearen osagai eratzaila gisa.

Konstituzioaren indar arau-emaileak eragingarritasun juridiko osoa eman dio eskubide horri, bera aldarrikatu zenetik. Horren ondorioz, eskubide horren galdagarritasun juridikoa loteslea da botere publikoentzat nahiz subjektu pribatuentzat.

Edozelan ere, beharrezkoa da eskubide horren edukia zehaztea, informazio-arloko profesionalen eskubide berezi horren oinarriko hartzaile direnek, eskubidea behar bezala egikaritzea ziurtatzeko, eta,aldi berean, adierazpen-askatasunari eta informaziorako eskubideari nahitaezko tresna juridikoa eratxikitzeo, beraien egikaritzea eragingarria izan dadin zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoan.

Lege organiko honek aintzat hartu ditu Konstituzio Auzitegiak ezarritako ildoak. Ildo horien arabera, botere publikoei, eta, beraz, parlamentuari, eskatu behar zaie oinarriko eskubideen defentsarako ekintza positiboak gauzatzea. Modu horretara ziurtatuko da askatasunaren eta berdintasunaren konstituzio- -balioek behar duten osagarritasuna.

Esangura horretan, lege organiko honetako artikuluen xedea da informazio- arloko profesionalen oinarriko eskubidea eratxikitzea, profesional horien funtsezko faktore baitira informazioak ekoizteko orduan.

Profesional horien jardunean berebiziko garrantzia du osagai intelektualak, eta hori ezin ahaztuz dezaizkete botere publikoek, ezta komunikazio- enpresek ere.

Egin-eginean ere, informazioa ezin da merkataritzako erabakien mende utzi. Orobat, ezin uler daiteke informazio-arloko profesionala mertzenario modukoa denik, alegia, prest dagoenik Konstituzioaren egiazkotasun- eta aniztasun-agindua bazter utzita hedatutako informazio eta berriak jasotzeko.

Horrenbestez, lege organiko hau definitzen duten osagaiak abiapuntu bikoitza dute. Batetik, informazio-arloko profesionala gizarte-eragilea da, alde batera utzi ezinezko erantzukizun- -printzipioaren

que ejerce su trabajo bajo el principio ineludible de la responsabilidad; y, en segundo lugar, la concepción de las empresas de comunicación como entidades que, más allá de su naturaleza jurídica —empresas públicas o privadas—, participan en el ejercicio de un derecho constitucional, que es condición necesaria para la existencia de un régimen democrático.

#### **Artículo 1**

La cláusula de conciencia es un derecho constitucional de los profesionales de la información que tiene por objeto garantizar la independencia en el desempeño de su función profesional.

#### **Artículo 2**

1. En virtud de la cláusula de conciencia los profesionales de la información tienen derecho a solicitar la rescisión de su relación jurídica con la empresa de comunicación en que trabajen:

a) Cuando en el medio de comunicación con el que estén vinculados laboralmente se produzca un cambio sustancial de orientación informativa o línea ideológica.

b) Cuando la empresa les traslade a otro medio del mismo grupo que por su género o línea suponga una ruptura patente con la orientación profesional del informador.

2. El ejercicio de este derecho dará lugar a una indemnización, que no será inferior a la pactada contractualmente o, en su defecto, a la establecida por la Ley para el despido improcedente.

#### **Artículo 3**

Los profesionales de la información podrán negarse, motivadamente, a participar en la elaboración de informaciones contrarias a los principios éticos de la comunicación, sin que ello pueda suponer sanción o perjuicio.

#### **DISPOSICIÓN DEROGATORIA**

##### **Única**

Quedan derogadas todas aquellas disposiciones que se opongan a lo establecido en la presente Ley Orgánica.

#### **DISPOSICIÓN FINAL**

##### **Única**

La presente Ley Orgánica entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial del Estado».

mende lan egiten duena. Bestetik, komunikazio-enpresek egikaritzen dute erregimen demokratikorako nahitaezko baldintza den konstituzio-eskubidea, eta horretarako ez da kontuan hartu behar enpresa horien izaera juridikoa — enpresa publikoak diren edo pribatuak—.

#### **1. artikulua**

Kontzientzia-klausula informazio- -arलो profesionalen konstituzio-eskubidea da; eskubide horren xedea da independentzia bermatzea, profesional horiek euren lanbide-eginkizuna gauzatzen dutenean.

#### **2. artikulua**

1. Kontzientzia-klausularen ondorioz, informazio-arलो profesionalak eskubidea dute, lan egiten duten komunikazio- enpresa horretan euren harreman juridikoak hutsaltzea eskatzeko:

a) Lan-lotura zein komunikabiderekin izan eta komunikabide horretan funtsezko aldaketa gertatzen denean, informazio- joeran edo ideologia-ildoan.

b) Enpresak profesional horiek lekualdatzen dituztenean talde bereko beste komunikabide batera, baldin eta komunikabide horren izaerak edo ildoak eragiten badu informatzailearen lanbide- joera modu nabarian haustea.

2. Eskubide hori egikaritzeak kalte- ordaina ekarriko du; kalte-ordain hori ez da izango kontratuan itundutakoa baino gutxiagokoa, edo, halakorik izan ezean, legean bidegabeko kaleratzearen kasuan ezarritakoa baino gutxiagokoa.

#### **3. artikulua**

Informazio-arलो profesionalak ezetza zioduna eman ahal izango diote komunikazioaren printzipio etikoen aurka informazioak gauzatzean parte hartzeari. Horri ezetza emateak ezin izango du zehapenik edo kalterik ekarri.

#### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

##### **Bakarra**

Indarrik gabe geratuko dira lege organiko honetan ezarritakoaren aurkako xedapen guztiak.

#### **AZKEN XEDAPENA**

##### **Bakarra**

Lege organiko hau «Estatuko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.